

7 LURRALDEETAKO 7 HANDIAK

Joxe Ramón Agirre "Márron"

URTE asko pasa dira gure baserriko ataritik, inguruko mendi haien atzean zer ote zegoen jakin nahiarekin irrikitzen egoten nintzen garai haietatik.

Oraindik belau buruak urratuz beterik mutil kozkorretan ohizkoa zen bezela, gogoratzen dut lehen aldiz, Aralar azpian dagoen Enirioko artzai txaboletara iritsi nintzenez; Baierreteko arratea bildur misteriotsuz zeharkatu ondoren. Mundu ezezagun bat agertzen zen nere aurrean. Ezin nuen sinetsi. Alde batera berdez jantzitako malda lehun batzuek agertzen ziren behor ta ardiz ornituta. Entzuten nituen zintzar "kilin kalan" haiek ere armonian zeunden naturarekin bat egingo zuten bezela.

Altu nengoen nonbait, beste aldera, inoiz ikusi gabeko tontorrek agertzen hasi baitziren eguzkia zihoan aldetik. Goruntz ematen nuen pauso bakoitzeko, urrutian mendi tontor ezezagunak nabarmen agertzen ziren zeru ertzean. Ikusmen hura inoiz begiztatu gabe nengoen, begiak itxeko denborarik gabe, detaile bat ere ez zen gelditu ikusi gabe. Dena buruan gorde

nuen sekretu bat bezala ta etxerako bideari ekin nion, pozez altxor bat aurkitu izan banu bezela.

Nere barnean su bat piztu zen momentu hartan, malda, tontor ta gain haiek hobeto ezagutaraztera bultzatuko ninduen. Ez nekiena momentu hartan hau zen: gain eta tontor haietatik agertuko ziren hainbat eta hainbat gain eta herrialde amets gai bihurtuko zirela. Amets gai haiek amets bihurtu ziren, eta ametsak gauzatu.

Bizitzan zehar, ibilbide horren eraginak, gizartea, ingurua edo bizitza bera ere, beste zentzu batetik ikusten lagundu nan.

Negua gogortasuna ulertu eta maitatzen, lainoarteko zuhaitzaz ohartzten eta nola ez, pertsonen arteko ezberdintasunak eta hutsak gainditzen.

Beti izan naiz naturaren

maitale bakartia,
behar bada bera
sentitzeko aukera
egokiena neretzat
horrela aurkitu
dudalako, baina
gogoko dut baita

ere, nola ez, bere gozamenak norbaitekin bizitzea.

Ertz geometrikoak dituzten mendi horiek, malda lehun berdeak edo baso eta haran galduak ezagutzeko aukerak bide batez, makina bat herri eta kulturetan murgiltzeko bidea eman dit, eta horrela eman nion hasiera ondorengo kontaktisunaren ibilaldiari.

"Lurra" 7 lurralde ta 7 gailur igo eta ezagutu nahian 1993-ko Maiatzean Everesten ekin nion asmoari, behar bada, han Aralarren lehen aldiz piztu zitzaidan su berberak bultzatuta eta ez inongo erronka eta leiak, itxura batez "zazpi handiak" hitz handi adierazten duten bezala.

Ez da samurra bat batean benetako agerpen bat egitea azken arte honetan izan ditudan igoera eta esperientziari buruz. Argitasunez agertzeko bizi izandako gogoetak, lasaitasuna aurkitu behar da, eta bake horretan murgiltzean, zure barnean gelditu diren oroimen haiek burura datozkizu eta loratzen hasten dira poliki poliki.



"Márron" Karatensoren

"LURRA" ESPEDIZIOA

7 KONTINENTEETAKO

7 GAILURRIK ALTUENAK

TXOMOLUNGMA ta gero

Everestek bere gailurrekin eta sufriarazi zizkidan gauza txar eta onekin, utzi zidan zaporea dastatzen ari nintzen bitartean, beste argi bat hasi zitzaidan pizten beste egitasmo batekin, beste kontinenteetako sei gailurretara igotzeko egitasmoarekin alegia, Everest jadanik lortutako helburutzat hartuz. (Everest Asiar Kontinenteko mendirik altuena eta, noski, munduko altuena).

Asko izan ziren bukatu dudana bide luze eta konplexu honi ekitera bultzatu ninduten itxaropenak. Ekonomi eta burokrazi arloko itxaropenak eta guzti honen atzean, nola ez, motibatzen eta tinko eta baikor mantentzen ninduen indar handi bat, izan ere, ohartzen nintzen balore hauek ezinbestekoak zirela ibilbide horretan zailtasun guztiak gainditzeko.

Everesteko erresaka pasatu ondoren, aginduak indarrak galtzen joan ziren eta karpeta besapean hartuta liburu saltzaile gisa eginiko bilera askoren nekea nagusitzen joan zen. Inoiz ez nuen pentsatu mendira igotzeko hain momentu txarrak pasatu beharko nituenik, baina ohartu ere ohartzen nintzen saltzen nuena ez zela bidaia turistiko soil bat, askok horrela pentsatu arren. Egitasmo honek zuen desafio alpinistikoa izateagatik baino berezia izateagatik zuen balore handiagoa, adibidez zailtasun handiko bide bat irekitzeagatik baino. Hemen beste zailtasun mota batzuk ere ikusten ziren: klimatologia, logistika, etab. Baina zailtasunak alde batera utziz, sakonean besterenganatu nahi zuen giza mensaia hori ere bazeukan. Argi dago, arrazoi nagusia mendiak eta bere inguruak niregan duten erakarpen hori izan dela. Batek eskalaten, paseatzen edo, nola ez, hegan egiten sentitzen duen askatasun hori ezinbestekoa da mendizale edo naturazale baten zat. Zorionekoa hori ezagutu duena eta zoriona ezagutzea. Eta lehen aipatu dudana moduan arlo kultural, historiko eta ekonomiko ere arduratuz, eta batez ere, giza harreman horretaz, begirune eta anaitasun giro batean. Guzti honek burrukan jarraitzeko eta ateak jotzen eta babesleak bilatzen jarraitzeko indarra eman zidan eta pixkana-



Everest

ka-pixkanaka lana bere etekinak ematen hasi zen.

Egitasmoan EITB-k, Aldundiak eta Euskal Mendi Federazioak hartu zuten parte, baina aipagarria da, zentzu guztietan, Goierri mailan izan dudana laguntza handia.

UHURU maiatzean

Horrela 1994ko Apirilaren 16an ekin ahal izan nion Kilimanjarorako lehenengo bidaiari.

Nairobi, Kenian, (nahiz eta Kilimanjara joateko Moshi, Tanzanian, izan helmuga) aurretik igotzeko kalkulaturik neuzkan datak atzeratu behar izan nituen arrazoi klimatikoengatik; eta horrela, Kenia mendian aklimatatu eta Masai Mara ezagutzeko aukera izan nuen. Iparraldean dagoen herrira (Manyukira) hurbildu nintzen, Kikuyu arraza nagusi

den herrialdera. Hemendik, tramiteak egin ondoren eta gia bat kontratatu ondoren, inguratzen hasi ahal izan ginen eta 3 egunetan Kanpo Basean kokatu ginen, Chipton Cave-n 4.200 metrotara. Hurrengo egunean Kenia mendiko Lenana gailurra egin nuen, hau Apirilaren 27an izan zen. Hurrengo egunetan Moshi-ra (Tanzanian) hurbildu nintzen, hemendik Kilimanjarora igotzeko. Hasieran gia eta sukaldaria uzteko asmoa banuen ere, arauk dena tarifetan sartzen zela eta, markesen antzera joan beharra izan nuen.

Horombo-ko, Mandara-ko eta Kibo-ko aterpetan lo egin ondoren, Maiatzaren 3an goizeko bostetan gailurrera iritsi ginen.

Ezuste handia izan zen, gailurretik hegaz egin nahi izan nuenean, izan ere, 3.000\$ amerikar ordaintzen ez banituen ez zidatela baimenik emango esan zidaten. Horrela, amore eman nion tentazioari eta oinez jaitsi nintzen Afrikar sabanak eskaintzen duen paisaia hostotsu horretaz gozatu eta Alaskako izotzetan pentsatuz.

Gailur Eguna

Ordu batetan puntuan ateratzen gara Abel eta biok. Gau izartsua dugu, 5.000 metrotan gaudelako izango da, behar bada. Oso umoretsu ikusten naiz, seirak aldera pentsatzen dugu tontorrera iristea. Bostak aldera Gilmans Point krateraren ertzean eta hemendik ordu bete barru Uhuru tontorra 5.895 metrorekin. Ordu-biak aldera ilargia Mawenza atzetik agertu da gure zaindari izan nahiean. Oso polita izan da. Ondorengo bidean argirik gabe joaten gara, gure zaindariak hontan laguntzen digunez. Beti izan dut gogoko ilargiaren argipean ibiltzea, beste giro batetan sararazten dizu.

Pauso bizia daramagu, Kenia mendian izandako aklimatizazioa nabaritzen dut. Konturazterako gain bati heltzen diogu, eta Abeli galdetzean honek Gilmans Pointen aurkitzen garela aitortzen dit. Hiru terdiak dira oraindik. Egun sentia tontorrean ikusteko asmoa genuen baina ... behar bada goizegi goaz hori topatze-ko.


Abel nahiko motel ikusten dut, aho zabalka dabil eta ez du ezer hartu nahi. Otz egiten du. Eguraldi lasaia dugu. Ilargia indartsu dago. Gilmans Pointetik Uhuru tontorrera 200 metrota-ko igoera dago, sumendiaren krateraren beste aldean, mendebaldean hain zuzen ere. Bide erdian Abel gelditu egiten da, urduri dagoela esanaz. Ez diot ulertzen. Esan nahi duena non-bait goizegi goazela eta egiten duen hotzarekin ez dela trebe dirudiela egokia bi ordu tontorrean egunsentiaren zain egotea. Egia esan, berak jantzita daraman erropa ikusita, ez naiz harritzen hotz sentitzea. Bostak aldera iristen gara tontorrera.

Besarkada bat, argazkiak ...e.a.

Flaxaren argiak, iluntasuna jaten du.



Kilimanjaro



Massai bat

DENALI ekainean

Bidaia astun baten ondoren, Atlantant eskala eginez, Anchorage-ra (Alaska) heldu nintzen 1994ko Maiatzaren 22an, 6.236 metroko McKinley igotzeko asmoarekin. Bi egunen buruan, Felipe Uriartek antolatutako taldearekin elkartu nintzen eta handik, CESSNA motako hegazkinez, 2.100 metro-tara Kahiltna glaziarrean dagoen McKinley-ko Kanpo Basera eraman gintuzten.

2. Kanporako bidea glaziar horretatik pasatzen da eta hemendik 2.900 metro-tara Ekialderantz jo behar da West Butters-eko Muturraren azpiraino, 3.400 metro-tara. Hemendik trineoetan egiten den garraioa zaila egiten da, aldaparen makurdura handia baita eta berehala galtzen da trineoen kontrola. Laugarren egunean 4. Kanpora iritsi ginen (Maiatzaren 29an). Hurrengo 3 egunetan, elurra mara-mara egin zuen. Laugarren egunean 5. kanpora porteo bat egin genuen eta 4. kanpora jaitsi ginen eta West Buttres-ko ertzetik parapentez hegaldi bat egiteko aprobetxatu nuen.

Berriro eguraldi txarra. 7an 5. k-ra igo ginen 5.200 metro-tara gailurrerako atakean pentsatuz. 8an haize indartsua izan genuen, baina arratsaldeko ordubietan gorantz irte-tea pentsatu genuen. Hotz izugarria eta haizea, hotz-beroa 40tik 45° C 0 azpitik. Gaueko hamarretan iritsi ginen gailurrera, eguzki izpiek oraindik zorroztua, baina zero ilunarekin. Haizeak jarraitzen zuen eta galiziar lagun batekin arazoak izan genituen, baina lau ordu pasa ondoren 5. k-ra iritsi ginen.

Hurrengo hiru egunetan K. Bra iritsi ginen, eta hemendik egun berean aeroplano batek Talkeetna-ra eraman gintuen, espedizioa amaitutzat emanaz.

Taldea agurtu ondoren Bering itsasarte-ko St. Lawrence irlara joatea erabaki nuen, Gambell-en bizi diren eskimo "Yupik" erre-serba batera, irlaren mendebaldean Sibe-riako kostaldetik 35 milatarra.

Familia edadetu batekin egon nintzen 10 egunetan eta, debekatu arte balearekin lan egiten zuten zenbait leku bisitatu ahal izan nituen. Udal korporazioko arduradun batekin egon ahal izan nintzen, beren historia eta eguneroko errealitatea xehetasun gehiagoz ezagutzeko.



"Márron" argazkiak

ELBRUS uztailean

Ekainaren 30ean, etxera itzuli nintzen Kaukasorako bidaia jarraitzeko Elbrusera, 5.642 metrotara.

Hau izan zen, denborari dagokionez, bidaiarik laburrena. Uztailean 8an Moskura iritsi nintzen eta 23an berriro etxean nengoen, izan ere, bisaduak ez zuen egun gehiagotan geratzen uzten.

Mosku-tik, Minevale Vody-ra joan nintzen hegazkinez Gabardino-Balkariako Errepublikak autonomoko hiriburura. Minevale Vody-tik 160 km-tara, Barskan haranean, aurkitzen da azken puntua Terskol herria 2.000 metrotako altueran. Herri hau Perestroykaz geroztik benetako miserian dago.

Dongosorun-en zehar eta Adyr-su haranean zehar aklimatatuz zenbait egun pasa ondoren, Priut-11-ko aterpera igo nintzen Elbrus-eko aldapetan 4.100 metrotara, eta 17an goizeko 9etan gailurrean nengoen.

Jaitsiera parapentez egin nuen bi gailurren artetik: nagusia den Mendebaldekoaren eta Ekialdekoaren artetik, Priut-eko Aterpean lurreratuz.

Hurrengo egunetan, itzulerarako egunehararte, lau egunez, haraneko herri txikiak ezagutzen ibili nintzen.



Elbrus

DUGUNDUGU urrian

Abustuan eta Irailean Carstenz, Vinson eta Akonkagarako xehetasunak prestatzen aritu nintzen. Baimenak konkretatzeko xehetasunak eta epeei zegozkien ordainketak egiteko, bidaia hauen gastuak oso altuak baitziren.

Tramiteekin bukatu ondoren eta finantziatu ondoren, dena prest zegoen bigarren etapari hasiera emateko. Honela Urriaren 15ean Indonesiara abiatu nintzen.

Hegaldia amaiezina izan zen Madrid-Yakarta-Biak-Nabire-Ilaga, lau hegaldi guztira, eta hiru egunen buruan herri honetara heldu nintzen, Dani-ra Irian Jaya barruan; kolonia indonesioa Guinea Papua Berriarekin mugan. Bi egun tramite kontutan ibili ondoren, 20an, 8 porteadorekin irten nintzen K.B-ra, Carstenz-eko hormara, 4.880 metrotara.



Jendearen apaltasunakin gozatuz

Daniak, nire lagun hoiek

Ilagako herrian lur hartu ondoren giro harrigarria ikusten dut hegazkin inguruan, ehunka biztanle militarren ostiko eta armen meatxupean lekuz kanpo mantentzen dituzte eta aldi berean, beraien ahalmena niri agertu nahiean. Oso giro larria bizitzen da Nueva Gineako kolonia indonesio honetan.

Larru bizian dabilzanak militar uniformeeekin kontraste gogorra egiten du.

Gaztetxo uniformatu hauen errespeto faltak benetan bihotza hunkitzen dit.

Zelai hau herritik hogeit bat minututara aurkitzen da, eta etorreraren ritual hau amaitu

ondoren denok prozesio gizan herrira itzultzen gara.

Baimen guztiak lortu ondoren eta antolaketa lanak amaitu ondoren abiatzeko prest nago. Sei egun eramango dit Cartenz-en azpira hurbiltze lanak. Zazpi porteatzaile eta gidari bat goaz, honek itzultzaile lanak ere egiten dizkit. Porteatzaileak, zazpi hoietatik hiru, patataz leporaino kargatuak dihoaz; hau, beraien elikadura bakarra da, bidean ehizatzen duten hargiaren gain. Hauek zama lepagainean daramate, oso neketsua ematen du, eta sarritan gelditu beharrean gertatzen gara atsedenean; bitar-

tean sua egin eta zer edo zer jan edateko aukera dugu.

Nire laguntzaileak umoretsu ikusten dira betik. Ilagan militarren meatsupean ohizkoa ez zen bezala. Gauean kobazulotan suaren inguruan beren kantuekin lo hartzen nuen bezala, kantu soinuarekin esnatzen nintzen berriro goizean. Oso atsegina egin zitzaidan Carstenz-eko hurbiltzea. Ezin dezaket esan, inoiz bakarrik sentitu nintzenik; Dani hauekin benetan harreman estua izan nuelako. Urriaren 27. Oinarrizko Kanpotik 6 orduz, horma horretako kanal horiek igo ondoren gailurrera iristen naiz.

6 egun oihanean eta sabanan ibili ondoren 26an basera iritsi ginen. Eguraldi ona aprobetxatzeko, atsedetik hartu gabe, 27an 6 ordu eskalatzan aritu ondoren, Harrer bidetik, muraila igo genuen, goizeko 11-etan gailurra eginez.

Hurrengo egunean, Puncak Jaya-ra 4.862 metrotara igo ginen eta egun batean atsedetik hartu ondoren jaitsi egin ginen, llagara jeisteko lau egun behar izan genituelarik.

Herri polit honetan, jendearen apaltasunaz eta abegikortasunaz gozatuz egun batzuk pasa ondoren, 10ean zibilizazio ezagunagorantz eramango ninduen aeroplanoa iritsi zen eta laster beste kontinente bat erabat desberdina, Antartida, bere punturik garaienera igotzeko, Vinson-era 4.897 metrotara.

VINSON abenduan

3 egun eman ondoren bultoa desegin eta berregiten beste igoera bat egiteko, Punta Arenas-era (Txile) irten nintzen, Antartidarako abiapuntura. Hau Azaroaren 14an izan zen. Punta Arenas-en nirekin esperientzia banatuko zuen Vladas vitkauskas lagun lituaniarrarekin elkartu nintzen eta itxaroten egun asko pasa ondoren, Azaroaren 25-ean, Patriot Hills-era (Kanadiar basera) joan ginen hegazkinez 3.800 km-ko distanziara eta Hego Polotik 800 kilometrotara. Patriot Hills-etik bi egunetara (Azaroaren 27an), aeroplanoz K.B-rantz irten ginen, Vinson menditik 200 kilometrotara. Egun berean trineoak prestatu genituen eta 1.ko k-ra iritsi ginen 2.500 metrotara 5 ordu pasa ondoren. Hurrengo bi egunetan 2a eta 3a lortu genituen, baina hurrengo bost egunetan blokeaturik egon ginen ekaitz-gatik; haize handiak eta hotz-bero bajuak jasanez.



Carstensz



"Miarro" argazkiak

Antartida

Antartida

Beti izan dut gogoko eta amets gai eskolan ikasitako alderdi izoztu haiek gertutik ezagutu eta bizi ahal izatea, nahiz eta orain arte aukera hau oso urrundik izan, Antartidara bidai batek eskatzen duen egitarau eta diru kopuruagatik. Hala ere Lurra ibilaldi honekin hasi ondoren geroz eta erosoago ikusten nuen lurralde zoragarri hori.

Benetan, buruhauste ugari eman zidan antolaketa eta laguntzaileak aurkitzen ibiltzeak 94ko Urria bitartean. Ez neukan oraindik garbi posible izango ote zen, baina makina bat bilera eta joanetorri izan ondoren ibilaldi hau gorputz hartzen hasi zen. Iristen da eguna abiatzeko. Iztotzetako tresna eta zama guztiak hartu eta egun batzuren ondoren Txileko Santiagotik hegoaldean dagoen Punta Arenasera jaisten naiz eta hemen eguraldia medio izandako bost eguneko atzerapen baten ondoren, Antartidan aurkitzen naiz. 7 orduko hegaldia baten ondoren lur hartzean atzeko ate handia irikitzen

dute eta begietako mina eginaz mundu zuri bat agertzen da nere aurrean. Lehen pausoak izotz urdin honen gainean kontu haundiz egiten ditut. Paraje liluragarri honetan lehen minutuak datatzen ari naiz.

Hegazkinetik 500 metrotara dago Patriot Hills Base canadiarra, eta bere inguruan ezartzen ditugu gure dendak. Hasiera batetan, gaur bertan aterako bagina ere, haize aldaketak eragotzen digu eta eguraldia hobetu bitartean atzeratzen dugu Vinson mendiaren Oinarriko Kanpoko ibilaldia.

80°ko latitudean aurkitzen gera, 800 km.tara Hego Polotik. 200 km.tara dago Oinarriko Kanpoko (2.000 m.). Mendi inguru hau ez ezik, inguru guztietara begiratu ta bukaerarik gabeko zeru ertz zuri bat nahasten da urdintasunarekin. 24 orduko eguzki argitasunak eguneko zereginetan, gaua ta egunaren zentzu horretatik kanpo uzten gaitu.

Antartidan gaude, eta bere eguraldi bereziak

ulertarazten dizkigu itxanonaldi hauek, nahiz eta gure bihotzak irrikitzen egon Vinson magalari heltzeko.

Bigarren kanpamenduraino beraz, eramaten ditugu gure zamak baina ondoren izotz jauzi bat zeharkatzen dugu ta hirugarrenean ezartzen gara (3.900 m.). Lau egun ta lau gau elurpean haizearen astinduak gasaten, luze egiten da. Tarteka ataria elurrez garbitu beharrak edo beste behar batzuk monotonia hori ahansterazten ziguten, ura egiten ez baldin bazen, izotz puska haiek urtuz. Eskerrak elurrez estalita ego-teak iluntasun pixka bat bagenuen behintzat ta honek lo egiten laguntzen zigun. Halako batetan eguzkiaren izpiak laino tartetik agertzen dira.

Abenduaren 5 ean egun haizetsu batetan 6 ordu ondoren Antartidako gainera iristen ginen (4.897 m.). Inguru guztietara begira ta itsaso zuri batek menperatzen zuen dena. Ez zegoen han ez haranik ez herririk ez hibai ta basorik.

Dena izotza, izotza, izotza.

Abuztuaren 5ean, infernu hartan bizitakoa oraindik ezin sinisturik eta jadanik zeruaren koloreaz ahazturik, lehenbailehen gailurra egitera abiatu ginen, eguraldiak uzten dituen aukera gutxiak aprobetxatuz.

Egun berean lortu genuen gailurra arratsaldeko hirurak eta laurdenetan, 6 ordu igotzen aritu ondoren. Hotza izugarria zen jotzen zuen haizeagatik eta ikusgaitasuna ez zen ona haizeak altxatzen zuen elurragatik.

3.k-ra jaisteko 3 ordu behar izan genituen eta hurrengo egunean K.B-ra iritsi ginen. Haize indartsuek K. Basean 10 arte egonarazi zigun, baina paisaia atseginez gozatzeko aprobetxatu genuen. Eguraldi txarra izan arren, moral eta motibazio altuek tinko iraurarazi gintuzten denbora guztian, eta hauek horrelako momentuetan ezinbestekoak izaten dira.

Patriot Hills-era jaitsi ginen egun berean Punta Arenas-era eramango gintuen beste hegaldi bat hartu genuen. Asko harritu gintuen gaueko iluntasuna izar eta guzti ikustek, izan ere, Antartidan urte sasoi honetan 24 orduz egun argi dago.



Vinson

AKONKAGUA abenduan

Azkena geratzen zitzaidan. Abenduaren 16an Santiagora iritsi nintzen Punta Arenas-etik. Hemen zita garrantzitsu bat neukan. Adiskide batzuk lagundu nahi ninduten azken zati honetan.

16an Puente de Inca-ra (Argentina) heldu ginen; hurrengo egunean Aconcagua-rako bidetara ekin genion. Bi egunen buruan Plaza de Mulas-era iritsi ginen 4.265 metro-

tara. Mendi horrek aklimatazio ona eskatzen zuela jakinik, egun batzuk eman genituen horretan; inguruetako gailurretara igoz eta Nido de Cóndores-era (5.480 m.) porteo bat eginez. 23an atakea egitea erabaki genuen eta Nido de Cóndores-era iritsi ginen, nahiz eta egun berean ebakuatu behar izan osasun arazoak zirela medio. Hurrengo egunean, 24an, Berlin Aterpean geunden 5.950 metrotara Eguberria ospatzen, baina

Aconcagua


hurrengo egunean oraindik hobeto ospatu genuen; 7 ordu harriekin borrokan ibili ondoren, batez ere, kanaletakoekin. Ahalegin guztiak eta beste batzuk ere ahaztuz, eta humanitateari lortutako 7 gailurren eta beraietan bizitako hainbat esperientziaren ohorea eta eskeintza aldi berean eginez, Abenduaren 25ean, 7 gailurrek eta 7 kontinenteek bat egin zuten nire oroimenean. Han bete zen desafio bat, ilusio bat.

Denekin ospatzen dut eta denen ohorez.



"Marrón" argaskiak

7 LURRALDEETAKO 7 HANDIAK



R E S U M E N

Everest 8.848 m.
Nepal
ASIA

Realizado en primavera del 93.

Después de 7 días de aproximación al Campo Base, aquí comenzamos el trabajo de establecer los campos de altura (4), mientras nos aclimatamos.

El 16 de mayo alcanzamos la cumbre.

Kilimanjaro 5.895 m.
Tanzania
AFRICA

Después de despedirme del acogedor pueblo de Moshi, comienza la ascensión y en 4 días alcanzo la cumbre el 3-V-94.

Es de interés también reflejar aspectos sociales y humanos del pueblo Massai, así como la gran diversidad de animales que viven en este territorio.

McKinley 6.194 m.
Alaska
ARTICO

Alaska es un mundo mágico en que el poder de la naturaleza tiene un gran protagonismo. No ocurre lo mismo con los Yupik (Esquimales) de la Isla de Saint Lawrence, que es un pueblo agonizando.

El McKinley al Norte de Anchorage arropado de glaciares es logrado el 8-VI-94.

Elbrus 5.642 m.
Cáucaso
EUROPA

Al sur de Rusia se encuentra la República Autónoma de Gabadino-Balkaria, en el Cáucaso. La mayoría son musulmanes. Por razones políticas la situación es precaria y frágil.

Después de aclimatarte la ascensión se realiza en dos etapas: Priut-11 y cumbre. 17-VII-94

Carstensz 4.884 m.
Indonesia
OCEANIA

Es curioso y difícil de asimilar la situación cuando uno tiene que compartir todo con una gente que si tiene frío tiene que hacer una hoguera y si tiene hambre debe tener una flecha afilada y cazar con precisión.

Irian Jaya es una región colonizada por Indonesia en la parte occidental de Papua Nueva Guinea. Cumbre 26-X-94

Vinson 4.897 m.
ANTARTIDA

Dejamos tierra chilena. De Punta Arenas 3.800 Km. nos separan de Patriot Hills, Base canadiense. Desde aquí, en otro vuelo llevo al C. Base.

La ascensión se realiza en 4 etapas, logrando la cumbre el 5-XII-94.

Antártida contiene el 80% de agua dulce y la superficie es de 30 veces la de España.

Aconcagua 6.960 m.
Argentina
AMERICA

La cadena montañosa de los Andes se extiende de manera ininterrumpida por el borde occidental de toda América del Sur. Recorreremos el desierto de Atacama a 4.000 m. Ascensión a Ojos del Salado. El Aconcagua es el más alto de la cadena y alcanzo la cumbre el 25-XII-94, dando fin a esta andadura.

Es interesante también el Sur de Chile, Puerto Mont, Torres del Paine, etc.

CARSTENSZ MENDIA IRIAN JAYA

JAKARTATIK ia orduetara aidez, ekialderantz oraindik, Biak izeneko irla batetara iristen da, eta hemendik beste egun batetan, hegorantz oraingoan, Nabire hirira, Jayako mendebaldean aurkitzen den itsas herrixka honetara.

Hemen **TRANSMIGRAZIOKO** leku dutenez, %80 irlatik kanpokoa da.

Bainan ez da bidaia amaitu oraindik. Nabiretik beste egazkin bat hartzen dut, ia Ingalterra bezain handia den irla honen barnera, eta baso itxi horiek gainean pasa ondoren, zelai une batetan lur hartzen dugu. Ilagan gaude, Ripto, Jakartako laguntzailea, eta ni.

Ehundaka inguratu ziren, biztanle haien irrintziak gortu beharrik. Hegazkina joan zen eta erriflez eta makilaz osotuta zeuden militar batzuk bostehen bat metrotara zegoen harretara zuzendu gintuzten. Ama-

ueak, eta zakilean *kotekaz* hornituriko gizon zaildu haiek ere, ilaran prozesioan zetozen, zer edo zeren usainean.

Ilagako herrian, giro estua bizi zutela ikusi nuen *danien* eta militarren artean. Beraien bizimoduko ohituretan ulertzen ez ziren gauzak, makilka ezartzen dizkietelako.

Paper guziak bete ondoren, zazpi porteatzaile, Ripto ete ni abiatu ginen esperotako gogoz Carstenszaruntz.

Sei egunak danikin

Lehen egunean Kago azken herri hau zeharkatu ondoren, bertakoek harridurapean baso itxian sartzen gara.

Porteatzaile bat soilik, bidea garbitzen doa matxetez.

Zuhaitz eroriak eta erreka zuloak pasatu ezinean ibili ondoren, leher eta zopa eginda, gain batetan gelditzen gara lehen gauean.

Bidea garbitzen ibili denak, metro askotan aurre hartzen digu eta gu iristerakoan kea sumatzen dugu. **NAIBEN** da bera eta trebea da leku hauetan. Besteak ikasten.

Kamara iritsi gara. Iritsi orduko hasten dira egurrak moztzen, sua indartu eta la babesa egitera ere. Zuhaitz azpiko albitz belarrarekin azpia ere egiten dute, beti su inguruan, bere goxotasunean lo egiteko. Lagun pare bat ari dira egurra ekarri eta egurra ekarri gau guztian, sua indarrean izateko.

Ordu pare batez, lanak amaitu ondoren jartzen dira su inguruan eta patata sail bat jartzen dute eltzean berehala jateko. Hau dute eguneroko jan garrantziko bakarra.

Ilunarekin batera beraien kantu hotsek basoko isil-tasuna hausten dute.

Lehen egunetan, basoa zeharkatzen dugu eta 3.500 mtan gaude, Mapalan Ondorengo egunak, leku lehungoetan joaten gara, baina arratsaldero, leku euritsua denez, hiru-lau bat orduz euria egiten du. Erropa eta oinetako ezaz, eguraldi txarrarekin asko eragozten da.

Laugarren egunean Kalamako kobazulo batetara gindoazela, kazkabi eutsi batek hamar bat zm tan loditu zuen zorua eta oinutsik zeudenez, ordu pare batez egon ginen deseginduta bitartean. Une guztietan izaten da aitzakia sua piztu eta patata batzuk jateko.

Bosgarrenean Larson lakura goaz ia 4.000 m. Hemen azken zatian mailo batzuk zeharkatzen ditugu, beste kobazulo batetara iritsi baino lehen.

Egun gogorra izan da gaurkoa beraiantzat hotzarenegatik, elurra bertara iritsi delako. Beraien kezka handia biharko New Zealand lepoa (4.500) elurrez egotea da, arkaitz zorrotza eta elurrez gain, ulertzekoa da.

Azken gaua hormaren oinarria joan aurretik, koba bikainean egiten dugu lo, barnean ur pixka bat egon arren.

Berehala su handiak giro hezea lehortzen du eta gaztaien antzera esteak ez du inor izutzen.

Belar sortak dakartzate gaua ahal den gozoen igarotzeko. Gau ilunean suak eta hauen abestiak beste mundu fantastiko bat sortzen zuten. Goizean beste goiz askotan bezala, ke hauts zuriz estalita esnatzen gara eta azken txingurriekin patata apur batzuekin gosaltzen dute. Pozik gaude bidea garbi dugula ikusita.

New Zealand lepora hiru ordutan iristen gara eta zeharkatu ondoren 4.100 mtan. dagoen oinarritzko kanpora iristen gara. Oinarritzko kanpo hau Carstensz mendian ifar aldean gelditzen da Danau-Danau hara-



Carstensz
Daniak, nire lagunak ▶

nean, eta hau bera mendebalderantz, Tembaparako koprezko meatzetara doa.

Gailurrera

Gailur egunean, goizeko bostak aldera ateratzen gara Ripto eta biok eta morrena batzuk gainditu ondoren, berriro jaitsi eta ordu batez horma barrenean gaude.

Ez dago elurrik eta horma lehor dago. Lehen ehun metroak, nahiko hautsita aurkitzen dira eta kontuz ibiltzea eskatzen du, baina ondoren harkaitzak zihurtasun handia eskeintzen du.

Bide gehiena diedro edo kanal batzutatik doa. Lau ordutan mendebal ertzerira irten gara. Beste bi orduz ertz zorrotz batek gailurrera eramango gaitu.

RESUMEN

ES tan impresionante la marcha de aproximación, a lo largo de seis días por la selva, conviviendo con los increíbles "danis", que Márron, cuando sabe sobre el Carstensz, dedica sólo los tres últimos párrafos a contar cómo es la hora de aproximación a la pared, las cuatro horas para preparar por canales y diédros los 800 m. de desnivel de la cara norte, por una zona cada vez más sólida y las dos horas de cresta afilada para alcanzar la cima de Oceanía.

"Márron" argaskiak

DATU TEKNIKOAK

Bidaia:

Garuda - Indonesia
Madrid - Paris - Jakarta - Biak
Biak - Nabire (Merpati) Nabire - Ilaga (Merpati)

Baimenak eta Antolaketak:

Sonny Sukada - TREKMATE (Jakarta)
Fax zenb. 62.21.725 01 86 - 720 69 27

Egutegia:

Lau egun - Ilaga
6 egun: Ilaga - C.B.
3 egun I Carstensz; 2 Puncak; Jaya; 3 atsedena
4 egun: C.B.-Ilaga
Etxera bi egunetan.

Garaia:

1994ko urria. Gailurra 26-X-94.

Mendiko Materiala:

Eurirako erropa komeni da, aterkia batez ere eta galtzerdi ugari eraman egunero oinek bustita bukatzen dutenez. Arratsaldero euria egiten du.

Eskalatzeko:

9 mm. tako 50 soka
6 zinta bi metrotakoak
Bi friend (handietakoak)

Osasun neurriak:

Komeni da malariarentzat sendagilearekin egotea.
Botika kutxa bat beharrezkoa da bertan erabiltzeko.

Ordua:

Euskadin eguerdiko 12ak Irian Jayan gaueko 10ak.

Txanpona:

Rupia (Dolar Amerikar bat 2000 rupia).

